



**2023KO AZAROAREN 20KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren 20an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Bilkurari hasiera eman aurretik, Tokiko Gobernu Batzordeak, gai zerrendan ez dagoen hurrengo gaia jorratzea erabaki du: "Lazkaoko udalaren ondarezko aseguruaren eta aseguru pertsonalen kontratazioaren esleipena".

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko azaroaren 6an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 88 zenbakidun fakturen zerrenda, HIRUROGEITA HAMABOST MILA EHUN ETA LAUROGEITA BI euro ETA LAUROGEITA HAMAR zentimokoa (75.182,90 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- ZUBIZKITZA AUZOKO 1. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 1. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Zubizkitza auzoko 1. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen lehen obra egiaztagiria egin dute. Lehen obra egiaztagiri honen zenbatekoa BERROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA BOST euro ETA BEDERATZI zentimokoa (55.505,09 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HAMAIIKA MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMASEI euro ETA ZAZPI zentimokoa (11.656,07 €) da, guztira HIRUROGEITA ZAZPI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BAT euro ETA HAMASEI zentimokoa (67.161,16 €).

Lanak SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresa ari da burutzen.



Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzios (EH Bildu), lehen obra egiaztagiri hau onartu egin du.

IV.- PARROKIA ETA IKASTOLAREN ARTEAN, AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN, OINEZKO PASABIDEAREN IANEN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA,-

Parrokia eta Ikastolaren artean Agauntza erreka gainean oinezko pasabidea obraren obra zuzendaritza daraman Amaia Salaberria Azantza bideetako ingeniariak, Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak, lanen bigarren obra egiaztagiria egin du. Bigarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa SEI MILA BOSTEHUN ETA HIRU euro ETA HOGEITA BOST zentimo (6.503,25 €) gehi B.E.Z.ri dagokion MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BOST euro ETA HIRUROGEITA ZORTZI zentimo (1.365,68 €) da, guztira ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI euro ETA LAUROGEITA HAMAHIRU zentimo (7.868,93 €).

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L. enpresa ari da burutzen.

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzios (EH Bildu), bigarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, ELEKTRIZITATE HORNIDURAREN ESLEIPENA.-

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, 40.5.b) artikuluan emandako eskumekin bat etorritik, Gobernantzako foru diputatuak 2023ko maiatzaren 19ko foru agindua bitartez, IBERDROLA CLIENTES S.A.U., I.F.Z. A95758389, enpresarekin "Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratatzekeo esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalarri dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikulua araberak, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak 2023ko azaroaren 6an emandako txostenaren arabera, aipatu zerbitzuaren beharra dela eta, energia elektrikoaren hornidura zerbitzuaren kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea proposatu du.



Administrazio honek kontratatzea beharko duen zerbitzua zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 265.474,00 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA CLIENTES S.A.U., I.F.Z. A95758389, enpresari esleitzea, izenpetutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGO.- IBERDROLA CLIENTES S.A.U., I.F.Z. A95758389, enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- IBERDROLA CLIENTES S.A.U., I.F.Z. A95758389, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea, aurtengo ekitaldiari dagokion 22.122,83 € gehi BEZ, euroko gastua, udal aurrekontuan, programa ezberdinetan, energia elektrikoaren hornidura gastua jasotzen duten 1 221.01 kontusailen kargura.

VI.- TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2023KO UDAL EKARPENA.-

Lazkaoko Udalarari 2023an dagokion urteko ekarpena 4.212 €takoa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez onartu du ekarpen hori.

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 18-11-10 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea 2023ko urriaren 23tik aurrera, astean 20 orduetik 3 ordu, elkarbizitza unitatean aldaketak egon direlako. Onuradunen ekarpena % 15koa izango da.
- 22-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua bajaran ematea azaroaren 1etik aurrera onuradunek hala eskatuta.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 23-01-017 zenbakidun esped.: alokairuko eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea 2023ko urritik, diru-sarreretan aldaketak egon direlako.



- 23-01-018 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako urrian 150 €-ko dirulaguntza ematea eta alokairu gastuetarako urrian 250€-ko dirulaguntza ematea. Eman daitekeenaren % 100 da.

VIII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Kantaka Abesbatza Taldeari.-

Talde hau cta Udalaran artean izenpelu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

2023ko otsailaren 6ko Tokiko Gobernu Batzordean, hitzartutako kopuruaren %60 ordaintzea onartu zen.

Orain, ordaintzeko falta den % 40 ordaintzea onartu da, 2.000 € hain zuzen ere.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 481.05.334.00 partidatik ordainduko da.

- Pedro Castelori.-

San Migeletako egitarauaren baitan, irailaren 4tik 10era bitartean, Pedro Castelo Pecosek (72572348B) Ariztikoko parkeko zuhaitzetan "Adar eta Abar" erakusketa jarri zuela eta, honi 321 €-ko dirulaguntza ematea.

- Goierriko Hitza eta Goierri Telebistari.-

Biztanleko 2€ ematearen irizpidea jarraituz, orain komunikabide bakoitzari 5.917 €-ko bigarren zatiaren ordainketa egitea.

2022 urteko biztanleria kontuan hartuta, 5.962 biztanle izanik, guztira 11.924 €-ko dirulaguntza dagokie. Baina lehen zatiaren ordainketa egiteko 2021. urteko biztanleriaren datua erabili zenez, 6.007 € ordaindu zitzaizkion bakoitzari. Beraz, lehen zatian 45 € gehiago ordaindu zitzaizkiela ikusirik, orain 5.917 €-ko kopurua dagokio bakoitzari.

Ordainketa 2023ko aurrekontuaren ondorengo partida hauetatik egingo da:

- Goierri Telebistari 471.01.491.00 partidatik
- Goierriko Hitzari 471.02.491.00 partidatik

Gurutze Gorriari.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren bigarren zatia, hau da 2.500 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.03.231.00 2023 partidatik egingo da.



- Orobione Jubilatatu Elkarteari.-

Orobione jubilatatu elkarteari 2023ko San Migel jaietako egitarauaren barruan, irailaren 23an egindako sagardo dastaketan edalontzien salmenta egiteagatik 655 €-ko dirulaguntza ematea. Jasotakoaren %50 da hain zuzen ere.

- Zagupe Astialdi Taldeari.-

2023ko udaran udalekuak antolatu ahal izateko aseguru bat kontratatu behar izan dutela eta, gastu honi aurre egiteko 632,33 €-ko dirulaguntza ematea.

IX.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bigarren ordainketa egitea:

| MERKATARIA | GUZTIRA |
|--|---------|
| GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.) | 355 € |
| PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA) | 1.475 € |
| OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI) | 100 € |
| JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU) | 1.545 € |
| NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ) | 2.140 € |
| AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT) | 515 € |
| GERRIKO SL | 275 € |
| MARIANA OSTERTAG (MAMUFO) | 65 € |
| JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO) | 410 € |
| LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA) | 375 € |
| MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR) | 35 € |
| XABIER BARANDIARAN (OSATU) | 765 € |
| JAUREGI ELEKTRIZITATEA | 2.885 € |
| GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.) | 355 € |
| JON SANTOS MARTIN | 200 € |
| JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA) | 310 € |
| LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE) | 75 € |
| ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO) | 800 € |

| | |
|----------------------------------|-----------------|
| AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT) | 350 € |
| IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN) | 580 € |
| EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA) | 230 € |
| GUZTIRA | 13.840 € |

Ordainketa Udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

- 2023ko Gabonetako erakusleiho lehiaketa.-

Lazkaoko merkatarilzaren sustapenerako, Lazkaoko Udalak 2023ko Gabonetarako antolatutako erakusleiho lehiaketa kanpainaren barnean, parte hartuko duten merkatariei eta herritarrei ondorengo sariak ematea: 1 471.01.433.01 partidatik:

Merkatariei: lehen hiru merkatarri sailkatuei Gabon-saski bana, 287,76 euroko guztizko balioa dutenak.

- Herritarrei: erosketa bono gisa sariak. 300 euroko sari bat eta 100 euroko lau sari, guztira 700 euro.

~~Guztira 987,76 euro ematea onartu da, eta ordainketak Udal aurrekontuaren 1 471.01.433.01 partidatik egingo dira.~~

X.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei zazpigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

| Baserritarra | Zenbatekoa |
|---------------------------|-------------------|
| Aitor Iztueta Barandiaran | 325 € |
| Iker Sukia Mesas | 1.035 € |
| GUZTIRA | 1.360 € |

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.



Kirol eta Gazteria Batzordearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzordeak ondorengo elkarteei dirulaguntza hauek ematea onartu du, jarraian aipatzen diren ekintzak antolatzeagatik:

| Kirol Elkartea | Ekintza | Zenbatekoa |
|---------------------------|-------------------------------|------------|
| Ikullu Razing Eskuderia | VIII. Goierri Rally Sprinta | 1.500 € |
| Ikullu Razing Eskuderia | V. Goilurrak Rallya | 3.500 € |
| Txindoki Atletismo Taldea | XXIII. Josetxo Imaz Memoriala | 800 € |

XII.- LAZKAOKO UDALAREN ONDAREZKO ASEGURUEN ETA ASEGURU PERTSONALEN KONTRATAZIOAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko ekainaren 5ean hartutako akordio bidez, Lazkaoko Udalaren ondarezko aseguru eta aseguru pertsonalen kontratazioa, prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko Berariazko Klausula Administratiboan eta Preskripzio Teknikoen pleguak eta kontratazio espediente onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean 2023ko uztailaren 21ean argitaratu zen.

Kontratazio hau bost sorta ezberdinetan esleituko da, sortak honakoak izanik:

I. sorta: Lazkaoko Udalaren ondarea osatzen duten ondasun higieziari (edukitzailea eta edukia) eta ondasun higigarriari egindako kalteak.

II. sorta: Lazkaoko Udalak, jabari publikoko eta ondarezko jabetzako ondasunen titular eta zerbitzu publikoen emaile den aldetik, hirugarrenen aurrean izan dezakeen erantzukizun zibilaren/ondare-erantzukizunaren ondoriozko kalteak.

III. sorta: Lazkaoko Udaleko enplegatu publikoen eta hautetsien erantzukizun zibila.

IV. sorta: Bizitza eta istripuak: hautetsien taldea.

V. sorta: Bizitza eta istripuak: bolondresen taldea.

- I.sorta:

Eskaintzak aurkezteko epean, sei proposamen aurkeztu ziren:

1.- AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS

2.- CAJA DE SEGUROS REUNIDOS COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, SA (CASER).



3.- HELVETIA SEGUROS

4.- MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.

5.- BILBAO, COMPAÑIA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS

6.- ZURICH INSURANCE PLC, SUCURSAL EN ESPAÑA

Aurkeztutako sei proposamenak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa jasotzen zuten 1. artxibo elektronikoak 2023ko urriaren 2an, eguerdiko 12etan, ireki ziren.

2023ko urriaren 6an, eguerdiko 12etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barnatzen zuten 2. zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ziren.


Hauk izan ziren onartutako 6 enpresek aurkeztutako eskaintzak eta bakoitzak lortutako puntuazioak, puntu gehien lortu dituztenetik gutxien lortu dituztenera ordenatuta:

| ENPRESAK | Polizen prezioa | | Polizen baldintzak (25 puntu) | PUNTUAK (100 puntu) |
|----------------|-----------------|-----------------------|----------------------------------|------------------------|
| | Zenbatekoa | Puntuak (75 puntu) | | |
| AXA | 18.590,58 € | 70,82 | 10 | 80,82 |
| HELVETIA | 20.500,00 € | 64,22 | 15,50 | 79,72 |
| SEGUROS BILBAO | 19.248,20 € | 68,40 | 10 | 78,40 |
| CASER | 17.554,63 € | 75 | 0 | 75 |
| MAPFRE | 19.635,00 € | 67,05 | 4 | 71,05 |
| ZURICH | 19.395,34 € | 67,88 | 2 | 69,88 |

Ondorioz, eta lehen sailkatua AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzailleen erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROSek fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROSen aldeko esleipen proposamena egin du.



- II. sorta:

Eskaintzak aurkezteko epean, proposamen bakarra aurkeztu zen:

1.- MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.

Aurkeztutako proposamena onartuak izan zen.

Administrazio-dokumentazioa jasotzen zuen 1. artxibo elektronikoa 2023ko urriaren 2an, eguerdiko 12etan, ireki zen.

2023ko urriaren 6an, eguerdiko 12etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuen 2. zenbakiko artxibo elektronikoa ireki zen.

Hau izan zen onartutako enpresak aurkeztutako eskaintza eta lortutako puntuazioa:

| ENPRESAK | Polizen prezioa | | Polizen baldintzak (25 puntu) | PUNTUAK (100 puntu) |
|----------|-----------------|-----------------------|----------------------------------|------------------------|
| | Zenbatekoa | Puntuak (75 puntu) | | |
| MAPFRE | 15.465,45 € | 75 | 15 | 90 |

Ondorioz, eta lehen sailkatua MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.ek fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

- III. sorta:

Eskaintzak aurkezteko epean, hiru proposamen aurkeztu ziren:

1.- AIG EUROPE, S. A. SUCURSAL EN ESPAÑA

2.- WR BERKLEY EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑA

3.- MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.

Aurkeztutako hiru proposamenak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa jasotzen zuten 1. artxibo elektronikoak 2023ko urriaren 2an, eguerdiko 12etan, ireki ziren.

2023ko urriaren 6an, eguerdiko 12etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuten 2. zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ziren.

Hauek izan ziren onartutako 3 enpresek aurkeztutako eskaintzak eta bakoitzak lortutako puntuazioak, puntu gehien lortu dituztenetik gutxien lortu dituztenera ordenatuta:

| ENPRESAK | Polizen prezioa | | Polizen baldintzak (25 puntu) | PUNTUAK (100 puntu) |
|----------|-----------------|-----------------------|----------------------------------|------------------------|
| | Zenbatekoa | Puntuak (75 puntu) | | |
| BERKLEY | 6.245,00 € | 75 | 20 | 95 |
| MAPFRE | 6.850,00 € | 68,37 | 15 | 83,37 |
| AIG | 6.899,00 € | 67,89 | 3 | 70,89 |

Ondorioz, eta lehen sailkatua WR BERKLEY EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑA izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitazailen erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

WR BERKLEY EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑAk fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak WR BERKLEY EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑAren aldeko esleipen proposamena egin du.

- IV. sorta:

Eskaintzak aurkezteko epean, bi proposamen aurkeztu ziren:

- 1.- FIATC MUTUA DE SEGUROS Y REASEGUROS
- 2.- MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A.

Aurkeztutako bi proposamenak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa jasotzen zuten 1. artxibo elektronikoak 2023ko urriaren 2an, eguerdiko 12etan, ireki ziren.

2023ko urriaren 6an, eguerdiko 12etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuten 2. zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ziren.

Hauek izan ziren onartutako 2 enpresek aurkeztutako eskaintzak eta bakoitzak lortutako puntuazioak, puntu gehien lortu dituztenetik gutxien lortu dituztenera ordenatuta:



| ENPRESAK | Polizen prezioa | | Polizen baldintzak (25 puntu) | PUNTUAK (100 puntu) |
|----------|-----------------|-----------------------|----------------------------------|------------------------|
| | Zenbatekoa | Puntuak (75 puntu) | | |
| MGS | 3.774,22 € | 75 | 7 | 82 |
| FIATC | 3.997,13 € | 70,81 | 1 | 71,81 |

Ondorioz, eta lehen sailkatua MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

- V. sorta:

Eskaintzak aurkezteko epean, lau proposamen aurkeztu ziren:

- 1.- CAJA DE SEGUROS REUNIDOS COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, SA (CASER)
- 2.- HELVETIA SEGUROS
- 3.- MAPFRE VIDA, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS SOBRE LA VIDA HUMANA
- 4.- MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A.

Aurkeztutako lau proposamenak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa jasotzen zuten 1. artxibo elektronikoak 2023ko urriaren 2an, eguerdiko 12etan, ireki ziren.

2023ko urriaren 6an, eguerdiko 12etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuten 2. zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ziren.

Hauek izan ziren onartutako 4 enpresek aurkeztutako eskaintzak eta bakoitzak lortutako puntuazioak, puntu gehien lortu dituztenetik gutxien lortu dituztenera ordenatuta:

| ENPRESAK | Polizen prezioa | | Polizen baldintzak (25 puntu) | PUNTUAK (100 puntu) |
|----------|-----------------|-----------------------|----------------------------------|------------------------|
| | Zenbatekoa | Puntuak (75 puntu) | | |

| | | | | |
|----------|----------|-------|----|-----------|
| MGS | 327,15 | 75 | 0 | 75 |
| HELVETIA | 873,01 € | 28,10 | 10 | 38,10 |
| MAPFRE | 943,61 € | 26 | 11 | 37 |
| CASER | 827,48 € | 29,65 | 0 | 29,65 |

Ondorioz, eta lehen sailkatua MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A. izanik, kaudi-
men baldintzak betetzen dituela eta lizitzaileen erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia honela, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Lazkaoko Udalaren ondarezko aseguru eta aseguru pertsonalen kontratazioari dagokionean, sorta bakoitzaren esleipena honako hauei egitea:

- I. sortaren esleipena, AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, kontratuak iraungo duen urterako, HEMEZORTZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR euro ETA BERROGEITA HEMEZORTZI zentimokoa (18.590,58 €) da.
- II. sortaren esleipena, MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, kontratuak iraungo duen urterako, HAMABOST MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA BOST euro ETA BERROGEITA BOST zentimokoa (15.465,45 €) da.
- III. sortaren esleipena, WR BERKLEY EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑA enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, kontratuak iraungo duen urterako, SEI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA BOST eurokoa (6.245 €) da.
- IV. sortaren esleipena, MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, kontratuak iraungo duen urterako, HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU euro ETA HOGEITA BI zentimokoa (3.774,22 €) da.
- V. sortaren esleipena, MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, kontratuak iraungo duen urterako, HIRUREHUN ETA HOGEITA ZAZPI euro ETA HAMABOST zentimokoa (327,15 €) da.



LAZKAOKO
UDALA

Bigarrena.- Esleipenaren akordioa, proposamena aurkeztu duten enpresei jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

XIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XIV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA